Sin./Fdo.: GORKA ESTEBEZ MENDIZABAL - 2022-03-18
LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL
Sin./Fdo.: IMANOL PRADALES GIL - 2022-03-18
AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2022-03-22
GZK-ko B gaia onartuta - Aprobado, asunto B) de FOD

Elektronikoki sinatutako dokumentua. I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV en www.ebizkaia.eus.

**ERABAKIA,** "Barakaldo eta Erandio artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubia eraikitzeko proiektua" behin-behinean onesteari eta bizikleta-bideen arloko arautegiaren ondorioetarako jendaurreko informazioaren izapidea betetzeari buruzkoa.

## A U R R E K A R I A K

**Bakarra.-** Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Plangintzaren eta Proiektuen Zerbitzuak Sail honetako Zerbitzu Orokorren Zerbitzuaren Atal Administratibo Juridikoari "Barakaldo eta Erandio artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubia eraikitzeko proiektua" bidali dio, onespena eman diezaion.

Igorritako txostenean, honako hau adierazten da:

PROIEKTUAREN HELBURUA.-

"Barakaldo eta Erandio artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubia eraikitzeko proiektuaren" xedea oinezkoentzako eta bizikletentzako garraiobide iraunkorretarako Bilboko itsasadarraren bi ertzak zubi baten bidez lotzeko beharrezkoak diren jarduketen definizioa eta balorazioa da.

Proiektu honen bidez jarraipena emango zaie eskuinaldeko eta ezkerreko L3 eta L4 bizikleta-bideei, hurrenez hurren, hau da, Bizkaiko Bizikleta-bideen Lurralde Plan Sektorialean jasota dagoen bezala. Plan hori onartu berria da behin-behinean eta bere barnean proiektu honen xede den lotura hartzen du.

Bizikleta-bideen arloaren ikuspegi formaletik, eta Bizkaiko Foru Bizikleta Bideei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauarekin bat etorriz, ibilbide berri hau bizikleta-bidearen tipologiaren

**ACUERDO** de aprobación provisional del "Proyecto de construcción del puente peatonal y ciclable entre Barakaldo y Erandio" y su sometimiento al trámite de información pública y audiencia a los efectos de la normativa sectorial de vías ciclistas.

## A N T E C E D E N T E S

**Único.** - Por el Servicio de Planeamiento y Proyectos del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial ha sido remitido a la Sección Jurídica Administrativa del Servicio de Servicios Generales de este Departamento para su aprobación el "Proyecto de construcción del puente peatonal y ciclable entre Barakaldo y Erandio".

En el Informe remitido, se indica lo siguiente:

OBJETO DEL PROYECTO. –

El objeto del "Proyecto de construcción del puente peatonal y ciclable entre Barakaldo y Erandio" es la definición y valoración de las actuaciones necesarias para conectar mediante un puente las dos márgenes de la Ría de Bilbao para los modos sostenibles de transporte peatonal y ciclable.

Mediante el presente proyecto se dará continuidad a las vías ciclistas L3 y L4, de margen derecha e izquierda respectivamente, tal como están recogidas en el Plan Territorial Sectorial de Vias Ciclables de Bizkaia de reciente aprobación provisional, el cual también, incluye la conexión objeto del presente proyecto.

Desde el punto de vista formal del ámbito de las vías ciclistas, y de acuerdo a la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de Vías Ciclistas Forales de Bizkaia, este nuevo itinerario se podría

barruan sailka liteke, “bizikleta-bidea” deritzonaren barruan, hau da, ziklo eta oinezkoentzako bidea da, motordun trafikotik bereizia eta gune irekietatik, parkeetatik, lorategietatik edo basoetatik igarotzen da. Kasu honetan gainera, sekzioak bizikleta eta oinezkoen erabilerarako argi eta garbi bereizitako bi banda dituenez, bizikleta-bide partekatua izango litzateke.

clasificar dentro de la tipología de vía ciclista denominada “senda ciclable”, esto es, vía para ciclos y peatones, segregada del tráfico motorizado y que discurre por espacios abiertos, parques, jardines o bosques. En este caso además, puesto que la sección incorpora dos bandas claramente diferenciadas para uso ciclista y peatonal, se trataría de una senda ciclable compartida.

Proiektu honek L3 eta L4 bizikleta-bideei (Bizkaiko Bizikleta-bideen Lurralde Plan Sektorialean jasotakoei) jarraipena emateko aukera ematen du, Itsasadarra zeharkatuz eta Bizkaiko bizikleta-sarea egituratuz. Gainera, oinezkoentzako eta bizikletentzako sarbidea emango du garraio publikora (Erandioko metroa, Barakaldoko trenbide-sarea, bi ertzetako autobusak), garraio publikoa sustatzen eta ibilgailu pribatuaren erabilera murrizten lagunduz, horrek dakarren ingurumen-onurarekin. Zubi honen bidez garraiobide osasungarriak ere sustatzen dira. Azkenik, jarduera hau klima-aldaketara egokitzen da, diseinuan ere kontuan hartzen delako (adibidez, ibilguaren gaineko altuera zehaztean) eta, gainera, aldaketa hori arintzen duelako ibilgailu pribatuen erabilera murrizten baitu eta, horrekin batera, berotegi-efektuko gas-emisioak, besteak beste.

El presente proyecto no sólo permitirá dar continuidad a las vías ciclistas L3 y L4 (recogidas en el PTS de vías ciclistas de Bizkaia) cruzando la Ría y mallando así la red ciclista de Bizkaia. Además dará acceso peatonal y ciclable a transporte público (metro de Erandio, red ferroviaria en Barakaldo, autobuses en ambas márgenes) contribuyendo al fomento del transporte público y a la reducción del uso del vehículo privado, con el consiguiente beneficio ambiental. También se fomentan mediante este puente los modos de transporte saludables. Finalmente, esta actuación no solamente se adapta al cambio climático, al tenerlo en cuenta en su diseño (como por ejemplo, al definir su altura sobre el cauce), sino que además mitiga dicho cambio, al reducir el uso de vehículos privados, y con ello las emisiones de gas de efecto invernadero, entre otros.

AURREKONTUA ETA LANAK EGITEKO EPEA.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe, HAMABOST MILIOI BOSTEHUN ETA LAUROGEITA BI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMO (15.582.236,17 €) da, eta BEZa (%21) HAMAZORTZI MILIOI ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA BOST EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (18.854.505,77 €).

PRESUPUESTO Y PLAZO DE EJECUCIÓN.- El presupuesto base de licitación sin IVA, asciende a la cantidad de QUINCE MILLONES QUINIENTOS OCHENTA Y DOS MIL DOSCIENTOS TREINTA Y SEIS EUROS, CON DIECISIETE CÉNTIMOS (15.582.236,17 €) y con IVA (21%) a la cantidad de DIECIOCHO MILLONES OCHOCIENTOS CINCUENTA Y CUATRO MIL QUINIENTOS CINCO EUROS CON SETENTA Y SIETE CÉNTIMOS (18.854.505,77 €).

Lanak egiteko aurrez ikusitako epea HAMAZORTZI (18) hilabetekoa da.

El plazo estimado para la ejecución es de DIECIOCHO (18) meses.

PROIEKTUAREN IKUSKAPEN-TXOSTENA.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 235. artikuluak eskatzen duen bezala, proiektua behin betiko onartu aurretik, proiektuak ikuskatzeko prozeduraren mende jarriko da, eta nahitaezko aldeko ikuskapen-

SUPERVISIÓN DEL PROYECTO. - De acuerdo con el artículo 235 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, previamente a su aprobación definitiva, el proyecto será sometido al procedimiento de supervisión de proyectos, incorporando el preceptivo informe de Supervisión favorable.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV en www.ebizkaia.eus.

txostena erantsiko zaio.

INGURUMENEKO ERAGINAREN GAINEKO EBALUAZIOA.- Zerbitzu sustatzailaren txostenean adierazten denez, indarrean dagoen araudian, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea, jasotako ebaluazio-kasuak aztertu ondoren, baztertu egin da proiektu hau arautitako ingurumen-ebaluazioko prozeduren mende jartzeko beharra.

EVALUACIÓN DE IMPACTO AMBIENTAL. - Según se indica en el Informe del servicio promotor, una vez analizados los supuestos de evaluación recogidos en la normativa vigente, Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, y Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental. se descarta la necesidad de someter el presente proyecto a ninguno de los procedimientos de evaluación ambiental reglados.

IZAPIDETZEA.- Gaur egun, Bizkaiko Bizikleta-bideen Lurralde Plan Sektoriala izapidetzen ari da, behin-behineko onarpen-fasean dago.

10/2014 Foru Arau horren Lehen Xedapen Iragankorraren arabera, Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorial berria izapidetzen ari denez, 20. artikuluko 1a) taldeko bizikleta-bideak eraikitzeko proiektuen exekuzioa bideragarri egin ahal izango da, 30 egun baliodunko jendaurreko erakustaldian eta bi hilabeteko entzunaldian tokiko korporazioei.

Ildo horretatik, beharrezkoa izango da tramite hori Barakaldo eta Erandioko udalei igortzea, baita Bilboko Portu Agintaritzari, Uraren Euskal Agentziari, Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari, Bilboko Itsas Kapitaintzari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Bilbao Ria 2000 sozietateari ere.

TRAMITACIÓN. Actualmente el Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia se halla en tramitación, en fase de aprobación provisional.

Conforme a la Disposición Transitoria Primera de la citada Norma Foral 10/2014, estando en tramitación el nuevo Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia, se podrá viabilizar la ejecución de los proyectos construcción de vías ciclistas del grupo 1a) del artículo 20, con un trámite de información pública de 30 días hábiles y audiencia por un periodo de dos meses a las corporaciones locales.

En este sentido será necesario elevar este trámite a los Ayuntamientos de Barakaldo y Erandio, así como a la Autoridad Portuaria de Bilbao, a Ur Agentzia/Agencia Vasca del Agua-URA, a la Demarcación de Costas del País Vasco, a la Capitanía Marítima de Bilbao, al Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia y a la Sociedad Bilbao Ria 2000.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.- Aplikatzekoa den araudia eta bizikleta-bidearen sailkapena.-** Eraikuntza-proiektu hau, dituen ezaugarriengatik, foru izaera duen bizikleta-bide bat da, ikusirik zer arautu den Bizkaiko bizikleta foru bideei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren bai 3. artikuluan, "*Bizikleta foru bideen definizioa*", eta bai 3. Eranskinean, "*Bizikletaz zirkulatzeko bideen tipifikazioa eta arauaren aplikazio-eremua*". Zehatz esanda, oinezkoekin partekatzeko den bizikleta-zidor bat da.

## FUNDAMENTOS JURIDICOS

**Primero. - Normativa de aplicación y clasificación de vía ciclista** El presente proyecto de construcción por sus características se trata de una vía ciclista de carácter foral a la vista de lo regulado en el artículo 3 "*Definición de las vías ciclistas forales*" y Anexo 3 "*Tipificación de las vías de circulación en bicicleta y ámbito de aplicación de la norma*" de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de vías ciclistas forales de Bizkaia. Concretamente, se trata de una senda ciclable compartida.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV en www.ebizkaia.eus.

Jarduera hau "1a) Bizikleta Bide Berriak" motako obren sailkapenaren barruan sartzen da. Bizkaiko Foru Bizikleta Bideei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren 20. artikulua.

Aurrekoa dela bide, aplikatzekoa da bizikleta foru bideei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauan xedatutakoa.

**Bigarrena.- Izapidetzea. Behin-behineko onespena eta informazio publikoa, eta entzunaldia.-** Bizkaiko Bizikleta-bideen Lurralde Plan Sektoriala izapidetzen ari da, geroago Batzar Nagusiek onartua izateko.

Proiektu hau ez dago I. Eranskineko Bizikleta Foru Bideen Katalogoan, zeren eta, proiektuan, "Obra eta proiektu multzoak" delako 20.1a) artikuluan araututakoak bezalako bizikleta-bide bat egitea planteatzen da; izan ere, bizikleta eta oinezkoentzako plataforma berri bat exekutatzea du jomuga. Eraikuntza-proiektuarekin, gainera, betetzen da Bizkaiko bizikleta foru bideei buruzko 10/2014 Foru Arauaren 20.2 artikuluan jasotako eskakizuna.

Aurreko arauak dio ezen aplikatzekoa zaiola 10/2014 Foru Arauaren Lehen Xedapen Iragankorrean xedatutakoa.

Aipatu manuan adierazitakoa oinarri, 22. artikuluan araututakoarekin loturik, ekin behar zaio proiektuaren behin-behineko onespenari, eta hogeita hamar (30) egun balioduneko epea zabaldu informazio publikoaren izapiderako, eta bi (2) hilabeteko entzunaldia interesdunak diren Barakaldo eta Erandio udalei, Bilboko Portuko Agintaritzari, Uraren Euskal Agentziari, Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari, Bilboko Itsas Kapitaintzari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Bilbao Ria 2000 sozietateari.

**Hirugarrena.- Organo eskuduna.-** Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena dauka Bizkaiko errepideak eta bideak planifikatu, proiektatu, eraiki, artatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko, Gernikako Autonomia Estatutuaren 10.34. artikuluan aitortzen denaren arabera eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko

La presente actuación se engloba dentro de la clasificación de obras tipo "1a) Nuevas Vías Ciclistas" recogida en el art. 20 de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de Vías Ciclistas Forales de Bizkaia.

En virtud de lo anterior, resulta de aplicación lo regulado en la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

**Segundo. - Tramitación. Aprobación provisional e información pública y audiencia. -** El Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia se halla en tramitación, para su posterior aprobación por las Juntas Generales.

El presente proyecto no se encuentra relacionado dentro del Catálogo de Vías Ciclistas Forales del Anexo I y en el mismo se proyecta una nueva vía ciclista de las reguladas en el artículo 20.1.a) *"Grupos de obras y proyectos"* pues se contempla la ejecución de una nueva plataforma ciclista-peatonal. Con el proyecto de construcción, además, se cumple con la exigencia recogida en el artículo 20.2. de la Norma Foral 10/2014, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

Lo anterior determina que le es aplicación lo regulado en la Disposición Transitoria Primera de la Norma Foral 10/2014.

En base a lo indicado en el citado precepto, en relación con lo regulado en el artículo 22, debe procederse a la aprobación provisional del proyecto, y abrir un trámite de información pública de treinta (30) días hábiles, y audiencia por un periodo de dos (2) meses a los ayuntamientos afectados de Barakaldo y Erandio y a la Autoridad Portuaria de Bilbao, a URA, a la Demarcación de Costas del País Vasco, a la Capitanía Marítima de Bilbao, al Consorció de Aguas de Bilbao Bizkaia y a la Sociedad Bilbao Ria 2000.

**Tercero.- Órgano competente.-** La Diputación Foral de Bizkaia es competente para la planificación, proyección, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de las carreteras y caminos de Bizkaia según se reconoce en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía de Gernika, el art. 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre de

Elektronikoki sinatutako dokumentua. I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV en www.ebizkaia.eus.

Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8. artikuluak eta Bizkaiko bizikleta-bide foralei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren 1. artikuluak eta horrekin bat datozenek xedatu bezala.

Ebazteko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak du, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arautzaileak onetsi zuen Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategineko laugarren xedapen gehigarrian, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 1eko 14/2022 Foru Dekretua (haren bidez, abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuak onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra aldatzen da, Aurrekontuei buruzko Foru Araua garatzen duena). Hala, eskumenduna da aldi baterako onesteko eta informazio publikoko eta entzunaldirako izapidetzeak hastea agintzeko.

Horregatik guztiagatik, azpian sinatzen duenak erabaki proposamen hau zuri aurkezteko ohorea du, ondoren Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseilura bidali dadin:

F O R U   E R A B A K I A

__Lehenengoa__.- Behin-behinean onestea "Barakaldo eta Erandio artean oinezkoentzako eta bizikletentzako zubia eraikitzeko proiektua". Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZ gabe, HAMABOST MILIOI BOSTEHUN ETA LAUROGEITA BI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMO (15.582.236,17 €) da, eta BEZa (%21) HAMAZORTZI MILIOI ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA BOST EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (18.854.505,77 €). Obrak egikaritzeko estimatutako epea HAMAZORTZI (18) hilabetekoa da. Honen oinarria da proiektua eta onespenerako bidalitako txostena, espedientean daudenak.

__Bigarrena__.- Informazio publikoaren izapidea eta tokiko erakundearentzako eta entitate publikoarentzako entzunaldiaren izapidea hasteko agindua ematea, Bizkaiko bizikleta-bide

Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, así como el artículo 1 y concordantes de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

La competencia para resolver corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, a tenor de lo dispuesto en la Disposición Adicional Cuarta del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 14/2022, de 1 de marzo, por el que se modifica el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia (Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre), que desarrolla la citada Norma Foral, por lo que se considera el competente para aprobarlo provisionalmente y ordenar la apertura de los tramites de información pública y audiencia.

Por todo ello, el que abajo suscribe tiene el honor de someter a V.I., para su posterior elevación al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, la siguiente propuesta de:

A C U E R D O   F O R A L

__Primero__.- Aprobar provisionalmente el "Proyecto de construcción del puente peatonal y ciclable entre Barakaldo y Erandio". El presupuesto base de licitación sin IVA, asciende a la cantidad de QUINCE MILLONES QUINIENTOS OCHENTA Y DOS MIL DOSCIENTOS TREINTA Y SEIS EUROS, CON DIECISIETE CÉNTIMOS (15.582.236,17 €) y con IVA (21%) a la cantidad de DIECIOCHO MILLONES OCHOCIENTOS CINCUENTA Y CUATRO MIL QUINIENTOS CINCO EUROS CON SETENTA Y SIETE CÉNTIMOS (18.854.505,77 €). El plazo estimado de ejecución es de DIECIOCHO (18) meses. Todo ello con fundamento en el Proyecto e Informe remitido para aprobación, que constan en el expediente.

__Segundo__. - Ordenar el inicio del trámite de información pública y audiencia a las corporaciones locales y a las entidades públicas, de conformidad con lo dispuesto en la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV en www.ebizkaia.eus.

foralei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren lehenengo xedapen iragankorrak 22. artikuluari dagokionez xedatutakoarekin bat etorrita.

Disposición Transitoria Primera en relación con el artículo 22 de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

<u>Hirugarrena</u>.- Proiektu hori jendaurrean erakustea hogeita hamar (30) egun baliodunekо epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren ondoko lehenengo egun baliodunetik zenbatuta, bizikleta-bidea interes orokorrekotzat jotzea justifikatzen duten inguruabarrei dagokienez eta trazaduraren diseinuaren planteamendu orokorrari dagokionez egokitzat jotako alegazioak eta oharrak aurkeztu ahal izateko.

<u>Tercero</u>. - Someter el citado Proyecto al trámite de información pública por un plazo de treinta (30) días hábiles a contar desde el primer día hábil siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, a fin de que en dicho plazo puedan presentarse cuantas alegaciones y observaciones se estimen oportunas sobre las circunstancias que justifiquen la declaración de interés general de la vía ciclista y sobre la concepción global de su trazado.

<u>Laugarrena</u>.- Aurretik adierazitako ondorioetarako, Bilboko Ibañez de Bilbao kaleko 20. zenbakian dauden Azpiegituretako eta Lurralde Garapenerako Sailaren bulegoetan espedientea erakusgai jartzea, erregistro horretan aurkeztu ahal izango direlarik dagozkion alegazioak eta oharrak. Hala ere, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedurari buruzko urriaren 1eko 39/2005 Legeko 16.4. artikuluan ezarritako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

<u>Cuarto</u>.- A los efectos anteriores poner de manifiesto el expediente en las dependencias del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, sito en la c/ Ibañez de Bilbao nº 20, donde podrá ser examinado, pudiendo presentarse las oportunas alegaciones y observaciones en el registro de dicha dependencia, sin perjuicio de la posibilidad de presentar las mismas en cualquiera de los lugares permitidos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Halaber, 39/2015 Legearen 83.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren webeko "jendaurreko informazioa-ren fasean dauden planak eta proiektuak" atalean kontsulta ahal izango dira eta, aldi berean, alegazioak aurkeztu ahal izango dira web horretan agertzen den bulego birtualaren bidez.

Asimismo en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 83.2 de la Ley 39/2015, podrá consultarse en la sección de "Planes y proyectos en fase de Información Pública" de la web de la Diputación Foral de Bizkaia e, igualmente, se podrán presentar las alegaciones a través de la oficina virtual señalada en la citada web.

<u>Bosgarrena</u>.- Dagokion iragarkia "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" jartzea.

<u>Quinto.</u> - Insertar el correspondiente anuncio en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

<u>Seigarrena</u>.- Jorratzen ari garen proiektua bidaltzea interesdunak diren Barakaldo eta Erandio udalei, Bilboko Portuko Agintaritzari, Uraren Euskal Agentziari, Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari, Bilboko Itsas Kapitaintzari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Bilbao Ria 2000 sozietateari, entzunaldi izapidetzean jartzeko, udal eta erakunde horiek bi hilabeteko epean aztertzeko, proiektuarekin ados dauden edo ez dauden adierazteko, eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak edo iradokizunak egiteko. Epe hori igaro ondoren horri buruzko oharrik ez badago, proposatutakoarekin ados daudela

<u>Sexto</u>.- Remitir el proyecto que nos ocupa a los ayuntamientos afectados de Barakaldo y Erandio y a la Autoridad Portuaria de Bilbao, a URA, a la Demarcación de Costas del País Vasco, a la Capitanía Marítima de Bilbao, al Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia y a la Sociedad Bilbao Ria 2000, al objeto de someterlo al trámite de audiencia, para que los citados ayuntamientos y organismos lo examinen en el plazo de dos meses, e informen sobre su conformidad o disconformidad con el Proyecto y formulen las alegaciones o sugerencias que estimen oportunas. Transcurrido dicho plazo sin que se

Elektronikoki sinatutako dokumentua. I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV en www.ebizkaia.eus.

ulertuko da. Hori guztia, ebazpen honen oinarrietan adierazitako arautegian ezarritakoarekin bat etorriz.

informe a este respecto se entenderá que están conformes con la propuesta formulada. Todo ello, de conformidad con lo dispuesto en la normativa mencionada en los fundamentos de la presente resolución.

Zazpigarrena.- Aurreko erabakien berri eman Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiari (Plangintzaren eta Proiektuen Zerbitzua), eta Foru Erabaki honen berri ematea Barakaldo eta Erandioko udalei, Bilboko Portuko Agintaritzari, Uraren Euskal Agentziari, Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari, Bilboko Itsas Kapitaintzari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Bilbao Ria 2000 sozietateari.

Séptimo. - Comunicar los acuerdos anteriores a la Dirección General de Desarrollo Territorial (Servicio de Planeamiento y Proyectos), así como notificar el presente Acuerdo Foral a los Ayuntamientos de Barakaldo y Erandio y a la Autoridad Portuaria de Bilbao, a URA, a la Demarcación de Costas del País Vasco, a la Capitanía Marítima de Bilbao, al Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia y a la Sociedad Bilbao Ria 2000.

Edonola ere, zeuk ebatziko duzu

V.I., no obstante, resolverá

Lurralde Garapenerako zuzendari nagusia / Director General de Desarrollo Territorial. GORKA ESTEBEZ MENDIZABAL

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. /De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatua / El Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. IMANOL PRADALES GIL

Elektronikoki sinatutako dokumentua. I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) I1VC-P8JJ-GFA4-N0HV en www.ebizkaia.eus.